



14 Aplikazio-jarduera

Hitzek adiera ugari dituzte. Batzuetan, hitz desberdinekin gauza bera esan daiteke, ikusi duzun bezala, eta badira kontrako adiera duten hitzak ere.

1. Irakurri testu hau, eta ordezkatu nabarmendutako hitzak kontrako adiera duen hitz batekin:

adierazi	ekitaldia
adiskide	autoa
garaiz	apurtu
oihu	bizikleta
lur jota	sakelakoa

Andereño Bullek ontziak **garbitzen** erakutsi digu Sukaldaritzako klasean. Amonari arrautzak jaten erakustea bezala! Munduko plater-garbitzailerik **onenetarikoa** izango naiz eta! Barry Kentek plater **apurtezin** horietako bat apurtu du; beraz, **kanpora** bidali du andereño Bullek. Gero, **ageri-agerian** erretzen ikusi dut pasiloan. Horrek ditu gibelak, horrek! Nire eginbeharra, andereño Bulli esatea zela pentsatu dut. Eta hori Barri Kenten osasunerako arduraz bakarrik egin dut, noski. Scruton begi **handiarengana** bidali du eta Benson eta Hedges guztiak konfiskatu ditu.

Adrian Moleren egunkari ezkutua, Sue Townsend

2. Hitz hauen artean, bikoteak egin antonimoak direnekin. Kontuz! Hitz batzuk kanpoan gera daitezke.

triste	kizkur	lodi	urduri	langile	alai	isil
altu	alfer	lasai	luze	txiki	argal	labur
gaizto	liso	berritsu	ilun	argi	motz	

--

3. Osatu honako gurutzegrama hau, eskatzen zaizkizun sinonimo eta antonimoekin:



1. *Gizen* hitzaren antonimoa
2. *Labur* hitzaren antonimoa
3. *Oztopo* hitzaren sinonimoa
4. *Langile* hitzaren antonimoa
5. *Zitala* hitzaren sinonimoa
6. *Txolin* hitzaren sinonimoa
7. *Zatar* hitzaren sinonimoa
8. *Lasai* hitzaren antonimoa
9. *Zain* egon aditzaren sinonimoa
10. *Argi* hitzaren antonimoa

